

## **EGIren Manifestua - 25N**

Gaur, gure gizartean oraindik ere bizirik dirauen bidegabekeria baten aurrean ahotsa altxatzen dugu: **indarkeria matxistak emakume askoren askatasuna, segurtasuna eta bizitza mugatzen jarraitzen du.**

lazko manifestuan indarkeria hau ez dela isolatutako edo ustekabeko arazo bat ohartarazi genuen. Egiturazko errealitate baten ondorio da: estereotipoak, isiltasunak, biktimen aurkako zalantzak eta gertakariak txikitu nahi dituzten diskurtso ukatzaileak. Horiek guztiek elikatzen dute emakumeen aurkako indarkeria eta desberdintasuna.

Horregatik, aurten **emakumeoi eragiten digunak gizarte osoari eragiten diola** azpimarratu nahi dugu. Indarkeria matxista ez da kontu pribatu edo indibiduala: giza harremanak, gure ongizate kolektiboa eta etorkizuna eraikitzeko ditugun balioak baldintzatzen ditu. Inork ezin dio bizkarra eman errealitate honi. Inork ezin du “berea ez dela” pentsatu.

Argi adierazi nahi dugu ez dugula atzerapausorik onartuko.

Ez dugu jarrera matxisten normalizazioa onartuko, ez eta erasoei axolagabekeriak begiratzea ere. Euskadi herri aske, bidezko eta segurua izatea nahi badugu, emakumeok ere gure bizitzako arlo guztietan askatasun osoa izan behar dugu.

Gure babes osoa adierazi nahi diegu indarkeria jasan duten emakumeei, isilean sufritzen dutenei eta eguneroko borrokan aurrera jarraitzen dutenei. Haien ausardiak lanean jarraitu behar dugula gogorarazten digu, eguneroko keinuetatik hasi eta maila instituzionaleraino, emakume bakar batek ere beldurra bizi ez dezan.

EGItik gure herrian **indarkeria matxistak ez duela lekurik aldarrikatu** nahi dugu.

Ez dugu zuritzen.

Ez dugu isilarazten.

Ez dugu onartzen.

Gure ahotsa gure artean ez daudenengatik altxatzen dugu, oraindik borrokan jarraitzen dugunongatik eta gizarte benetan berdinzale batean hazi nahi dugun guztiongatik.

**GORA BORROKA FEMINISTA!**

## Manifiesto de EGI - 25N

Hoy levantamos la voz frente a una injusticia que sigue presente en nuestra sociedad: **la violencia machista continúa limitando la libertad, la seguridad y la vida de demasiadas mujeres.**

En el manifiesto del año pasado ya advertíamos que esta violencia no es un problema aislado ni espontáneo. Persiste porque existe una estructura social que la sostiene: estereotipos, silencios, dudas hacia las víctimas, discursos negacionistas que intentan restarle importancia. Todos estos elementos forman parte de una misma raíz que perpetúa la desigualdad.

Por eso, este año queremos subrayar que **lo que afecta a las mujeres afecta a toda la sociedad.** La violencia machista no es un hecho privado ni individual: marca nuestras relaciones, nuestro bienestar colectivo y los valores sobre los que construimos el futuro. Nadie puede vivir de espaldas a esta realidad. Nadie puede pensar que “no va con él o con ella”.

Hoy reafirmamos que no permitiremos retrocesos.

No aceptamos la normalización de actitudes machistas, ni la indiferencia ante las agresiones, ni el intento de cuestionar los logros alcanzados en materia de igualdad. Euskadi es una sociedad que quiere ser libre, justa y segura, y eso solo será posible si las mujeres lo son en todos los ámbitos de su vida.

Volvemos a expresar nuestro respaldo a todas las mujeres que han sufrido violencia, a quienes la enfrentan en silencio y a quienes luchan cada día para salir adelante. Su valentía es un recordatorio de que debemos seguir trabajando, desde lo cotidiano hasta lo institucional, para que ninguna mujer tenga que vivir con miedo.

**Desde EGI declaramos que la violencia machista no tiene lugar en nuestro país.**

No la justificamos.

No la silenciamos.

No la toleramos.

Alzamos nuestra voz por las que ya no están, por las que siguen resistiendo y por aquellas que merecen crecer en una sociedad verdaderamente igualitaria.

**GORA BORROKA FEMINISTA!**